

# ANIMALIAK

BATETIK BESTERA  
IBILTZEN DA AZPITIK,  
ZULO ASKO EGITEN  
IA EZER IKUSI BARIK,  
ZUK ERE EZ PENTSA  
ERRAZ HARRAPATZERIK.

---

BELTZ, TXIKI ETA LANGILE FINAK  
GELDI EGONEZINAK,  
BETI DABILTZA BATERA ETA BESTERA  
BAINA EZIN HAUTSIK ATERA.

---

TXALEKO ZURIZ  
ETA FRAK BELTZEZ JANTZIA,  
HEGAN EGITEN EZ DUEN  
ITSASOKO HEGAZTIA.

---

BETI HARRO-HARRO DOAN  
SABANAKO ERREGEA  
IKUSTEN BADUZU ZIRKOAN  
PRESO DAGOEN SEINALEA.

---

OROIMEN ETA USAIMEN HANDIKOA  
LARRU GOGORREKO ABERA,  
SUDURRA ERE IZUGARRIZKOA  
MUNDUKO LUZEENA BERE.

---

HANKARIK EZ  
ETA SIGI-SAGA DABIL,  
BESORIK EZ  
ETA ZUHAITZETAN KIRIBIL.

ZER OTE DA, ZER,  
ETXEA SORBALDAN DUELA  
BATETIK BESTERA  
DABILENA?

---

LEHORREAN MAKALA  
URETAN BIZKORRA,  
SUGE BURUA DU  
ETA ETXEA GOGORRA.

---

MATXIN DUT IZENA  
ETA SALTOKA IBILTZEN NAIZ,  
EZ NAIZ OSO GIZENA  
BAINA AZKAR ETA ARINA BAI.

---

HEGALARI TREBEA  
LUMARIK GABEA,  
SAGUA OMEN DA  
BAINA EZ OSO GAZTEA.

---

ZEIN OTE DA, ZEIN  
ABESLARI GOIZTIARRA,  
KANPANDORREKO  
KANTARI ARRA?

---

AZPIA ZURI  
GAINA BELTZ,  
UDABERRIAN ETORRI  
NEGUAN IHES,  
HEGALARI BETI  
GUTXITAN OINEZ.

LUMAIA EDERRA DUT  
HANDIA ETA ZORROTZA MOKOA,  
BETI ERREPIKATZEN DUT  
ENTZUN ETA IKASITAKOA

---

NORK OTE DU  
POLTSIKOA ALDEAN  
NAHIZ ETA EZ DUEN  
JANTZIRIK GAINEAN?

---

TXERRIAREN AHAIDE  
EHITARIEN HARRAPAKIN,  
BASOAN DU BETETZEN  
URDAILA EZKURREKIN.

---

BELARRIAK LUZE  
ISATZA MOTZ,  
BETI KORRIKA ETA SALTOKA  
EZ DA IZANGO HOTZ.

**Erantzunak desordenatuta:** Basurdea, loroa, pinguinoa, kangurua, erbia, enara, matxinsaltoa, oilarra, saguzarra, dortoka, barraskiloa, sugea, lehoia, elefantea, inurria, eta satorra.